

¡AMA MAITIA!



Donibaneko euskal-festetan eun pezetakiñ saritua izan dan moldaera

(ON MIGEL SALABERRIA JAUNARI DONKITUA)

Mundubak duben choko
 Garbichuenian,
 Ama bat triste dago
 Laguntz bearrian;
 Semeari ojuka
 Biyotz barrunian
 Asko senti dubela
 Eziñ egonian.

Alde geyenetatik
 Baditu etsayak,
 Ar charra sartu nayan
 Dabiltza guztiyak;
 Berak aspaldichuan
 Dauzka igarriyak,
 Zein diran oitura zar
 Onen galgarriyak.

Lenago pakeakiñ
 Aberastasuna
 Zuben Ama guriak
 Eta ontasuna;
 Oraiñ nailiokeke
 Kendu osasuna,
 Bañan ¡ez! baldin bada
 Odol euskalduna.

¿Bai oteda, maitatzen
 Ez duen semerik
 Euskal-erriyan jayo
 Eta azi danik?
 Etzait iruditutzen
 Ain seme gaiztorik
 Ama gure maitiak
 Izango dubenik.

Munduban ez da iñon
 Ederragorikan,
 Ez ere nere ustez
 Berdintzekorikan;
 Izanagatik zarra
 Sustrayetatikan,
 Gaztia arkitzen da
 Lore emanikan.

Lore ori biegu
 Guztiyok jorraitu,
 Eta maitasunakiñ
 Utzi gabe zaitu;
 Ama lotsaturikan
 Ez dediñ arkitu
 Ez bere semerikan
 Atzian gelditu.

Kontu egin ziyoten
 Gure aurrekuak,
 Izanikan biyotzez
 Euskaldun prestuak;
 Etzituben etsayak
 Izutzen gajuak,
 Orain.... Zeruan dauzka
 Gure Jaungoikuak.

Bere oiturak ondo
 Zituzten gordetzen
 Baldin bazan etsayik
 Galdu nayan sartzen,
 Nayago zuten beren
 Odola isurtzen
 Ikusi, ez oiturak
 Utzi lurreratzen.

Gisa orretan danok
 Elkartzen bagera,
 Beti biziko zaigu
 Gure Ama Euskera;
 Iñoren lotsagarri
 Izanak ezgera,
 Eta guazen guztiyok
 Bera laztantzera.

Laztandu ondorean
 Danok gogor egiñ,
 Ez dediyen oitura
 Onikan desegiñ;
 Egiñ ezkeroz gure
 Artean alegiñ,
 Ez du esango Amak
 Degula utsegiñ.

Gure seaskachua
 Asko maitaturik,
 Pakean bizi bear
 Degu elkarturik;
 Ama Euskera gure
 Erdiyan arturik,
 Loratsu egongo da
 Bai beti bizirik.

Guazen bada aurrera
 Nere anai onak,
 Arturikan bide on
 Batetikan denak;
 Aurrekuen odola
 Kutsatzen degunak,
 Esan ill arteraño
 Geraeuskaldunak.

FELIPE KASAL ETA OTEGI.

